



Zezen plazari eta kanpoaldeari azken ukituak ematen ari ziren atzo.



Bihartik aurrera zezen plazak itxura hau izango du.

Zezenketak bai, zezenketak ez

ZEZENKETAK ▶ Aste Nagusian, egunero izango dira zezenketak Ilunbe zezen plazan. Atzo arratsaldean zezenketen aurkako manifestazioa egin zuten



Zezenketen aurkako manifestazioa egin zuten atzo. RAUL PEREZ

RAUL PEREZ

Aste Nagusia donostiarrontzat ala kanpotarrei begira antolatzen den. Hau da abuztuko festak gerturatzean gurean urtero pizten den eztabaidetako bat. Zezenketei buruz ere egon ohi dira jarrera kontrajarriak Aste Nagusian. Zezenzaleak Aste Nagusia noiz iritsiko zain izaten dira, arratsaldero Ilunben puntako toreatzaile eta zezenak ikusteko. Zezenketen kontrakoek, zezenketen lehen egunaren bezperan, manifestazioa egin dute.

Gaur hasiko dira zezenketak, eta atzo zezenketen kontrakoek hartu zuten hitza. Sinadurak jaso zituzten lehenik eta ondoren, Animalien Eskubideen Aldeko Elkarteak eta Zezenketen

Aurkako Plataformak deituta, manifestazioa egin zuten Erdialdeko kaleetan barrena jai giroan, txaranga eta guzti. Donostiako Piratek ere bat egin zuten manifestazioan. Zezenketarik ez egiteko aldarrikatu zuten, eta horrekin batera, Donostiako Udalari, Bartzelona-koak egin bezala, zezenketen aurkako jarrera hartzea eskatu zioten. Atzoko manifestazioan zezenen eta gainerako animalia guztien eskubideen alde egin zuten.

New Yorkeko zezenzalea

Gaurtik datorren igandera bitartean, zezenzale asko Ilunbe zezen plazan elkartuko dira. Zezen plazako leihatilan esan digutenez, «sarreraren salmenta ondo doa. Zezenzaleek gustura hartu dute gure eskaintza eta litekeena da egunen batean plaza lepo betetzea». Donostia eta inguruko zezenzaleak alde batera utzita, urrutitik datorren zezenzalerik ere ba omen dago: «Frantziarrak, portugesak eta italiarrak etortzen dira urtero, eta baita New Yorkeko zezenzale bat ere».

Bidebietako zezenzale lagunarteko presidente Evaristo Vicentek azaldu duenez, 50 bat lagun joango dira egunero zezenketetara. Vicenteren ustez, asteazken, ostegun eta azken egunekoak izango dira onenak: «Hermoso de Mendozak, El Cidek eta El Fundik toreatuko baitute, hurrenez hurren».

Txomin Rekondo kale egiten ez duten horietakoa da. Bere ustez, azken eguna, hilak 21, izango da zita nagusia, «zezen victorinoak izango baitira». Rekondoren ustez, gora-beherak izan dira Ilunbe zabaldu zutenetik: «Lehen urteak oso onak izan ziren, baina azken urteetan behera egin dute. Aurten egitaraua ikusita, ematen du berriz ere gora egingo dutela».

AGURRAK ▶

HITZA, zorion agurren tarte

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:

CLICK DONOSTIA argazki denda (Peñaflorida 6)
 FOTO MIKI (Matia kalea 3)
 KATTAGORRI argazki denda (Larratxo pasealekua 26)
 DAM arropa denda (Narrika 23)
 EASO LIBURUDENDA (Mandasko dukea 9)

Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri. Mila esker!